

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko martxoaren 17an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

10.- ITXAS-GANE FUTBOL ZELAICO ARGINDAR-SAREA EGOKITZEKO LANAK BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Itxas-Gane futbol zelaiko argindar-sarea egokitzea. Behin-behineko esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Prozedura negoziatuaren bidez 3 enpresa gonbidatu dira eskaintzak aurkeztu daiezan.

- E. ASMOTUR-URIARTE, S.L.
- TECUNI, S.A.
- ELECTRICIDAD MANU, S.L.

E. ASMOTUR-URIARTE, S.L. eta ELECTRICIDAD MANU, S.L. enpresek ez dabe hobakuntzarik aurkeztu. Beraien eskaintzen arabera, lizitazio-prezioa mantentzen da.

TECUNI, S.A. enpreseak, ostera, beherapen bat egin dau, hala eta guztiz be hori ez da kontuan hartzen balorazioa egiteko, holan dagoalako jasota baldintza-orrietan.

Bigarrena: Aurkeztutako dokumentazioa azertu ondoren eta kalifiketako sistema kontuan harturik, TECUNI, SA enpreseak lortu dau punturik gehien. Hauxe da puntu kopuruaren taulea:

Enpresea	Hobekuntzak (0-100)		Guztira (0-100)
	Obra gehitzea (0-70)	Bestelakoak (0-30)	
ASMOTUR-URIARTE	0	0	0
TECUNI	0	30	30
ELECTRICIDAD MANU	0	0	0

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Itxas-gane Futbol Zelaiko argindar-sarea egokitzeko obrea TECUNI, SA enpreari esleitzea behin-behinekoz, 44.190,04 euroan (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 7.070,41 €-koa da. Guztira, 51.260,45 €.

BIGARRENA: Kontratuan jaso beharko dira enpresek aurkeztutako hobekuntza guztiak.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea, behin betiko esleipena egin ahal izateko, jarraian adierazoten dan jarduketea egin beharko dauela:

- Behin betiko bermea jarri (2.209,50 €).

Horretarako hamar (10) laneguneko epea eukiko dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko martxoaren 22an.

ONETSIA
ALKATEA